



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko abenduaren 12a

148. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan Foruzaingoak bere gain hartze aldera foru erkidegoan egiten diren kirol ekitaldi guztietako segurtasun eta zaintza lanak. EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da departamentuen arteko koordinazio-talde bat sor dezan, kultur aniztasuneko politikak bultzatzeko eta kultur aniztasunerako eta bizikidetasunerako plan bat egiteko. María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza itunak errespetatu ditzan. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da seme-alabak beren kargura dituzten familiei laguntzeko politika publikoak aplikatu ditzan. Mónica Domenech Linde andreak aurkeztu du (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen baitio legea bete dezan eta pentsioak inflazioaren arabera igo ditzan 2017ko urtarrilaren 1ean. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakiteko ea Hezkuntza Departamentuak zer jarduketa egin dituen eremu ez euskalduneko ikasle txeeetan Haur eta Lehen Hezkuntzako euskarazko espezialitateetako lanpostu hutsak betetzeari dagokionez 55/2016 Foru Aginduko zenbait atal indarrik gabe uztea gomendatzen duen Arartekoaren ebazpena delata. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, hezkuntzako patronalarekiko 2016-2017 ikasturteetik aitzineko hezkuntza-itunei dagokienez aurreikusitako jarduketari buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Sarrigurenen Bigarren Hezkuntzako institutu bat eraikitzeari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (11. or.).

- Galdera, Ingelesez Ikasteko Programa arautuko lukeen foru aginduaren zirriborroan jasotzen den saio-kopurua ezartzeko irizpideei buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Benjamín de Tudela BHira joaten diren ikasleak aurten izaten ari diren garraio-arazoei buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, ikastetxe publikoetako eta itunduetako zuzendariekiko urteko bilerari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, kontratu publikoei buruzko Foru Lege proiektu berriari buruzkoa. José Miguel Nuin Moreno jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, *Hazte Oír ¿Sabes lo que quieren enseñarle a tu hijo en tu colegio? Las leyes del adoctrinamiento sexual* liburuari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (14. or.).
- Galdera, telefonia mugikorrek Nafarroan duen estaldurari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Elerebro S.A.k kudeatzen duen Castejongo zentral termikoaren bigarren multzoari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Benjamín de Tudela institutura joaten diren ikasleen garraio-zerbitzuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Legearen garapen planari buruzkoa. Ana San Martín Aniz andreak egin du (16. or.).
- Galdera, sinbolo frankistak direla-eta Gobernuak egin duen behin-behineko zerrendari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Karlismoaren Museoko Batzorde Aholku-emaileari buruzkoa. José Miguel Nuin Moreno jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Nasuvinsaren industriadako lurzoruari edo etorkizunean industria-erabilera emateko lurzoruari buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko Lankidetzaren Protokoloari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (19. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan Foruzaingoak bere gain hartze aldera foru erkidegoan egiten diren kirol ekitaldi guztietako segurtasun eta zaintza lanak.

EH BILDU NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hartu beharreko neurriak har ditzan Foruzaingoak bere gain hartze aldera foru erkidegoan egiten diren kirol ekitaldi guztietako segurtasun eta zaintza lanak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

2016ko azaroaren 7an Sadar futbol-zelaian Osasuna eta Alavés taldeen arteko kirol ekitaldia izan zen. Partida horren kariaz Alavés taldearen jarraitzaile ugari agertu ziren Iruñera, derbiak gozatzeko.

Partida jai giroan iragan zen, eta iraun zuen bitartean ez zen inolako istilurik izan. Behin parti-

da amaituta, eta Alavesen jarraitzaileak kirol-estadiotik ateratzen ari zirenean, Polizia Nazionalako agenteek haien aurka oldartu ziren, modu bidegabean, jarraitzaile zuri-urdinen aldetik ez baitzen izan inolako probokaziorik.

Bertan ziren lekukoen arabera, polizien eraso erabat neurrigabea izan zen; haien defentsak erabilita jarraitzaile asko jo zituzten, askotariko lesioak, ubeldurak eta zauri makatuak eraginez, sare sozialetan hedatu diren argazki eta bideoetan ikus daitekeenez.

Gertakari horiek, oihartzun mediatiko handia izan dutenak, oso larriak badira ere, Gobernuaren Ordezkaritzak oraindik ez du ikerketarik abiarazi gertatutakoa argitzeko, eta ez du, ezta ere, neurririk iragarri, etorkizunean antzeko gertakaririk berriro egon ez dadin.

Poliziaren esku-hartze bidegabe hori ez da egintza isolatu bat. Azken hilabeteotan Osasunaren zaleek salaketa publiko ugari plazaratu dituzte, Polizia Nazionalako agenteen jarduketa irregularrak salatzen, esate baterako, Indarkeriaren aurkako Batzordeak onartu gabeko artean sailkatu ez diren ikur batzuk futbol-zelaira sartzen eragozte, miaketa guztiz zehatzak, futbol-zelaira sartzean nola handik ateratzean, errespetu faltak, eta abar. Jokabide horrek aurkakotasun giroa sortzen du, kirolaren arloan indarkeriazko portaerak desagerrarazteari inolako mesederik egiten ez diona.

Horregatik guztiagatik, erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Arbuioa adieraztea kirol ikuskizunetako indarkeriazko ekintza ororen aurrean.

2. Gure elkartasuna adieraztea poliziaren erasoaren ondorioz lesionatuta gertatu ziren Alavés taldearen zaleei.

3. Nafarroako Gobernua premiatzea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.14 artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, Nafarroak kirolaren arloan eskumen osoa duela ezartzen baitu, behar diren neurriak har ditzan, aurrerantzean Foruzaingoak bere gain hartze

aldera foru erkidegoan egiten diren kirol ekitaldi guztietako segurtasun eta zaintza lanak, liga profesionaleko futbol partidetakoak barne.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Eleduna: Adolfo Araiz Flamarique

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da departamentuen arteko koordinazio-talde bat sor dezan, kultur aniztasuneko politikak bultzatzeko eta kultur aniztasunerako eta bizikidetasunerako plan bat egiteko.

MARÍA ASUNCIÓN FERNÁNDEZ DE GARAYALDE LAZKANO SALA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita departamentuen arteko koordinazio-talde bat sor dezan, kultur aniztasuneko politikak bultzatzeko eta kultur aniztasunerako eta bizikidetasunerako plan bat egiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Deitzen den hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeko mozioa, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano Salak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, zeina 9-16/ITP- 00018 espediente-zenbakiko jabelduratik heldu baita.

Arrazoi ekonomiko, politiko, kultural eta sozialen ondoriozko migrazio-fluxuek ekarri dute nafar asko mundu osoan sakabanatzea eta, halaber, Nafarroara etorki askotako pertsonak eta taldeak

etortzea. Haatik, Nafarroa anitza da bere herritarren jatorriari dagokionez.

Aniztasun horretatik abiatuta lan egin behar dugu, herritar guztion artean, jatorria edozein dela ere. Eredu asimilazionistetatik eta immigraziotik politikak baztertzailetatik aniztasun kultureko politika barneratzaileetara igaro behar dugu. Herritar guztiak izan behar dira politika horien hartzaile, eskubide- eta aukera-berdintasunean, xede nagusi hartuta bizikidetzat bermatzea.

Aniztasuna modu integralean ulertzen dugu, Nafarroako herritar guztiak bilduta haien errealitate guztietan, jatorriaren eta kulturaren aniztasunarekin loturik. Gainera, gainditu behar da estatukoa ez den immigrazioaren kudeaketa soilaren logika, berez dakarrelako aniztasunaren kudeaketarako ikuspegi integrala galtzea. Gainera, kontuan hartu behar da kolektibo eta komunitate bakoitzaren berezko izaera berezia. Alderdi horretatik, zeharkakotasuna izan behar da kultur aniztasunerako politiketan jarduteko ardatzetako bat.

Ezinbestekoa da zeharkakotasun hori aplikatzea, bermatze aldera Nafarroako Gobernuko gainerako arloetan bultzatzen eta abiarazten diren politikek eta jarduketek bermatuko dutela eskubide- eta aukera-berdintasuna hartzaile diren herritar guztientzat, edozein dela ere haien jatorri edo etorkia.

Inplikaturako subjektu guztien protagonismoa ahalbidetu behar dugu, eta haiek zuzenean parte hartzea ere bai, ahalduz guneak eta dinamikak sortuz. Bermatu behar dugu inplikaturako eragile guztien eta, oro har, herritar guztien parte-hartze sozial eta politikoa.

Nafarroako gizarteak XXI. mendean dituen erronka nagusietako bat kultur-aniztasunaren kudeaketa egokia da; horregatik, immigrazioaren fenomenoari erantzuten dioten politiketatik igaro behar da migratzaileak aniztasunaren kudeaketa demokratikorako politiketan integratzeko politiketara.

Hori dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Erakundeekiko Harremanetarako Departamentutik departamentuen arteko koordinazio-talde bat sor dezan kultur aniztasuneko politikak bultzatzeko, eta ikuspegi hori kontuan

har dezan, zeharkakotasunez, departamentu guztietan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, kultur aniztasunerako eta bizikidetasunerako plan bat egin dezan, Nafarroan jatorriaren eta kulturaren aniztasunarekin loturik dauden errealitate guztiei erantzuteko. Gizarteratzeko politikak kontuan hartuko dituen plan integral bat izanen da, herritar guztiei eskubide- eta aukera berdintasuna bermatzeko, bai eta bizikidetzarekin eta gure aniztasun osoa egokitzearekin lotutako politikak ere.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza itunak errespetatuz.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hezkuntza itunak errespetatuz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza-itunak errespetatuz.

Nafarroako Gobernuari eusten dioten alderdien ordezkariak "hezkuntza-itunak berritzea" dela-eta egindako azken adierazpenek agerian uzten dute indar horien sentsibilitate falta, eta are foru gobernuarena ere, hezkuntzako aukera horri dagokionez. Halaber, erakusten dute asmoa dutela irizpide sektario eta autoritario bat inposatzeko, hezkuntza itunduari bizkarra eman eta, era horretan, gurasoei murrizteko haien seme-alabentzat nahi duten ikastetxea aukeratzeko askatasuna. Konstituzioaren 27.1 artikulua araberak "guztiak" dute hezkuntzarako eskubidea, baita irakaskuntzarako askatasuna ere.

Edonork ikus dezake Nafarroako Gobernuari eusten dioten alderdien helburua dela hezkuntza itunduari finantzaketa publikoa pixkanaka gutxitzea. Jarrera horrek dakar, hitzez hitz, hezkuntzako aukera hori pixkanaka kentzea gure erkidegoan eta, beraz, 36.500etik gora ikasleren gurasoei urratzea egokitzen duten hezkuntza ereduak aukeratzeko eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua ezartzen duen moduan. Era berean, jarrera horrek arriskuan jartzen du sare itundurako lan egiten duten ia 3.000 irakasleren enplegua.

Alderdi Popularretik beti agertu gara eredu baten alde, zeinak bermatuko eta errespetatuko duen, lehenengo eta behin, gurasoek ikastetxea, publikoa zein pribatua izan, aukeratzeko askatasu-

na, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko borondateekin, sarea edozein dela ere, eta hezkuntza-zerbitzu hobe emateko.

Ezin da ulertu hezkuntzaren benetako eskubi-dea eskola itundua sartu gabe, Konstituzioak jasozten duen hautatzeko askatasuna bermatuko duen aukerako eskaintza osagarri gisa. Era horretan bakarrik eduki ahal izanen dugu XXI. mendeko eredu bat, pluraltasunean, aniztasunean eta askatasunean oinarritua, gure hezkuntza sistemaren ezaugarriak baitira.

Horiek horrela, uste dugu hezkuntza itundua ez dela hezkuntza publikoaren ez subsidiarioa ez osagarria ere; aldiz, kontzeptu plural batean ezartzen da, zeinetan hezkuntza publikoa, pribatua eta itundua harmonian bizi diren, gure hezkuntza sistema aberasteko eta hobetzeko. Nafarroako Gobernuaren betebeharra da Konstituzioaren aginduak betetzen direla bermatzea, eta begiratzeari gurasoek haien seme-alabentzat ikastetxea hautatzeko duten askatasuna ez dela murrizten.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Bere politiken bidez berma ditzan familiek seme-alabentzat egokien jotzen duten hezkuntza eredu hautatzeko dituzten eskubidea eta askatasuna, Konstituzioaren 27. artikuluan jasoak.

2. Aurrekontuetan behar adina diru jartzea hezkuntza publiko itunduari dagozkion kontu-sailetan, indarrean diren akordioei eta arauari jarraikiz.

3. Hezkuntzako sistema publiko bat sustatzea, doakoa eta kalitatezkoa, sektarismorik eta kolore politikorik gabea.

4. Ikasleek, gurasoek eta irakasleek ikastetxearen kontrolean eta kudeaketan parte hartzeko duten eskubidea errespetatzea.

5. Behar diren eskola-unitateak prestatzea funts publikoen bidez sostengatutako ikastetxeetan, eskaria baino ikasle-postu gehiago eskatzen direnean.

6. Nafarroako irakaskuntza itunduko irakasleen eta irakasle ez diren langileen ordainsariak % 1 handitzea, sare publikokoekin egin den bezala. 2016-17 ikasturte honetan ordaindu gabe gelditzen den % 1 ordaintzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da seme-alabak beren kargura dituzten familiei laguntzeko politika publikoak aplikatuz.

MÓNICA DOMENECH LINDE ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Domenech Linde andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita seme-alabak beren kargura dituzten familiei laguntzeko politika publikoak aplikatuz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Mónica Doménech Linde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Unicefen 2016ko txosten baten arabera, Espainian haurrendako eta familiendako inbertsioa BPGaren % 1,4 da. EBko batez bestekoa, aldiz, % 2,3 da. Familiaren diru-sarreraren arabera haur desberdintasunean Espainia herrialde garatuaren artean azken tokietan dago.

Horri dagokionez, esku hartzea eskatzen duten gai ezberdinak daude.

"Familia ugaria" izaera mantentzea.

Espainiako Gobernuak familia ugarietako laguntza neurriak onetsi ditu, Familia ugarietako babesleko 40/2003 Legea aldatuta. Egun, familia ugariaren izaera mantentzen da seme-alabetatik azkenek etxea uzten duen arte.

Familia ugariaren titularen txartelak, Nafarroako Gobernuako Familiaren Arloak ematen dituenak, pertsonalizatuta daude: izena eta beste datu batzuk biltzen dituzte, eta iraungitze data ere bai.

Eskabideak aurkezteko epea irekita dago urte osoan zehar.

Familia ugarietat jotzen da guraso batek edo bik hiru edo seme-alaba gehiagorekin osatutakoa, seme-alabak bi gurasoenak nahiz bakarrarenak izan, 21 urtetik beheitikoak edo, ikasten ari badira, 25 urtetik beheitikoak.

Nafarroan etxean 21etik 25urtera bitarteko seme-alabak dituzten familiek egiaztatu egin behar dute horiek ikasleak direla, ikasturte bakoitzean matrikulako datuak emanda. Beraz, urtero berriro behar dute familia ugariaren titulua, nahiz eta gurasoek eta 21 urtetik beheitiko seme-alabek titulua oraindik indarrean edukiko luketen zenbait urtez. Egoera horren ondorioz nafar batek urtero eguneratu behar du titulua, baliatu nahi badu, esate baterako, hiri-garraiorako tarifa soziala, edo energiarako bonu soziala, edo beste deskontu batzuk.

Epeak, elementu ortopedikoak eta agindutako beste batzuk erosteko laguntzetarako

Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako Departamentuak honako laguntza hauek eskaintzen ditu, besteak beste: Laguntzak familia ugarietako eta behar sozialak dituztenei, elementu optikoak, ortopedikoak, entzumenekoak eta ortodontziakoak erosteko, zenbait baldintzaren arabera; besteak beste, errentari dagozkionak eta medikuaren agindua.

Deialdi horretan, eskabidea aurkezteko epea dagokion urteko maiatzaren 31etik urriaren 15era artekoa da. Era horretan, laguntzak baliorik gabe gelditzen dira kasuko urteko hilabete horietatik kanpo.

Horregatik, urte osoan utzi beharko litzateke irekirik, eskatzen duten familiendako berdintasun-eta ekitate-neurri gisa.

Justizia soziala, bateragarritasuna, genero-ikuspegia eta eskubideetan berdintasuna

Erreforma fiskalarekin, inguruabar pertsonal eta familiarrengatik murriztapenak zerga-oinarrian aplikatu ordez, kuotan aplikatzen dira.

Familia bizitzeko gutxienekoaren kenkaria zerga-oinarrian aplikatzea ez da onura fiskal bat. Zerga-oinarriak islatu behar du norberaren kontri-

buzio-ahalmena, eta errenta bera duten bi pertsonarentzat ahalmen hori ez da bera izanen, batak seme-alabarik ez badu eta besteak bai.

Zerga-arloko justiziak eskatzen du norberak bere ahalmenaren arabera ekarpena egitea, eta seme-alabak dituenaren zerga-oinarria txikiagoa izatea, bizitzeko dituen beharrak handiagoak direlako, bere seme-alaben beharrei erantzun behar baitie.

Europako Parlamentuak onetsi berri du ebazpen bat, Kontseiluaren 2010eko martxoaren 8ko 2010/18/UE Zuzentarauaren aplikazioaren gainekoa, zeinaren bidez aplikatzen den guraso-baimenari buruzko esparru akordio berrikusia eta 96/34CE Zuzentaria indargabetzen den.

Ezinezkoa da familia eta lana bateragarri egitea guraso-baimenaren aplikazioa hobetzen ez bada. Eta aitak zein amak dira guraso, aukera eman behar baitaie, benetako berdintasunean, seme-alabekin egoteko. Halaber, lan-eskubideak bermatu behar dira, bidezko ordainsari bat baimen horrek dirauen bitartean, eta lanpostura itzultzeko baldintza argiak.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Gobernuak honetarako premiatzen da:

1. "Familia ugari" izaera mantentzeko dezan familia ugariaren tituluak eguneratzen direnean, Familia ugariak babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen aldaketak adierazten duen moduan, eta, beraz, familia-buruen eta familia-unitatean gelditzen diren 21 urtetik beheitiko seme-alaben xartelen gehieneko iraungitze-data ere bai.

Familia ugaria egiaztatzean, bereizketa egin dadin familia-unitateko kideen indarraldiaren edo iraungitzearen arabera. Eta, horiek horrela, urteroko berrikuspenean bereiz dadin egoeraz aldatu egin diren familia ugariaren tituluaren txartelekin. Alegia, familia ugariaren izaera mantentzen duten 21 urtetik 25era bitarteko seme-alabena, ikasketak jarraitzeko ikastetxe ofizial batean matrikulatuta dauden bitartean eta diru-sarrerarik ez badute.

2. Oinarri arautzailea alda dezan familia ugariarentzako aparteko gastuetarako laguntzen deial-

dian, entzute-protzesietarako, preskripzio optikoetarako, ortopediarako eta ortodontziarako direnean, datei dagokienez; eta, beraz, indarrean egon dadin dagokion urteko 12 hilabeteetan zehar, eta ez maiatzaren 31tik urriaren 15era arteko epean bakarrik, zeina aurreikusten baita 2016tik 2019ra arte indarra duen deialdian.

Kanpoan gera ez daitezen ortopediako, betaurrekoetako eta bestelako gastu batzuk, deialdian jasotzen direnak eta urriaren 16tik abenduaren 31ra arte gertatzen badira, laguntzen deialdiaren egungo testuan agertzen den bezala, zeina, berriro diot, 2019ra arte indarrean baitago.

3. Alda dadin familia bizitzeko gutxienekoaren izaera, eta gutxieneko familiarren kenkaria, gisa horretan, zerga-oinarriari aplikatu dakion.

Hau da, PFEZko murrizketa pertsonal eta familiarren kenkaria, kuotatik egin ordez, zerga-oinarritik egingen da, berriro ere.

4. Familia-politikak genero- eta familia-ikuspegiarekin ezar daitezten:

Jaiotza, adopzio edo etxean hartzeagatikiko baja-aldiak luzeagoak izan daitezten sustatzea, atxikimendua errazteko.

Gizonezkoen zein emakumezkoen berdintasun eragiten dieten neurriak aplikatzea, aitatasun eta amatasun baimenak biendako berdintasun eta besterenezinak izan daitezten. Eta gainerako lan-eskubideak ere izan daitezten eskubide indibidualak, berdintasun, besterenezinak eta ordainduak.

5. Aintzat har dezan guraso-baimenaren gutxieneko iraupena lau hilabetetik sei hilabetera luzatzea, familiarren eta lanaren bateragarritasuna hobetzeko eta haurraren atxikimendua sustatzeko.

Proposa dezan guraso-baimenaren xede den haurraren adina handitzea, eta kontuan hartzea ere guraso-baimena haurraren legezko adinetik harago luzatzeko aukera, desgaitasuna edo iraupen luzeagoa gaixotasuna duten haurren kasuan, Europako zuzentariaren aurreikusten den bezala.

Iruñean, 2016ko azaroaren 30ean

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2016ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentua bat dator Nazio Batuen Erakundearekin: egun hau ospatzeak desgaitasuna duten pertsonen egoera agenda politikora eta sozialera ekartzeko aukera ematen du. Nafarroako Parlamentuak bizikidetasun-eredu batean aurrerabidea egiteko bere konpromisoa azaldu nahi du, gaitasunak gaitasun pertsonen erabateko gizarteratzea ahalbidetuko duena eta aukera berberak izatea eta herritarrek eskubideak zeharo baliatzea eragozten duten oztopoak desagerraraziko dituena.

2. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du giza eskubide eta oinarriko askatasun guztiak sustatzeko, babesteko eta bermatzeko, giza duintasunarekiko errespetutik eta begirunetik abiatuta. Horretarako, funtsezkoa da bermatzea pertsona

guztiak eskubide horiek baliatu ahal izatea, Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legea berehala garatuta.

3. Nafarroako Parlamentuaren ustez, funtsezkoa da ikerkuntza eta berrikuntza sustatzea eta desgaitasun saihegarrien prebentzio eta detekzio goiztiarreko programak eta arreta goiztiarra indartzea eta komunikazio oztopoak –fisikoak, entzumenekoak nahiz zentzumenekoak– gainditzea erraztuko duten baliabide zientifikoekin tratatzea.

4. Nafarroako Parlamentuak desgaitasuna duten pertsonentzako gizarte irisgarri, berdinzale eta solidarioago bat eraikitzearen aldeko apustua berresten du.”

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen baitio legea bete dezan eta pentsioak inflazioaren arabera igo ditzan 2017ko urtarrilaren 1ean.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2016ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio legea bete dezan eta pentsioak inflazioaren arabera igo ditzan 2017ko urtarrilaren 1ean.

2. Nafarroako Parlamentuak pentsio-sistemari eustearikiko bere konpromisoa adierazten du, jus-

tizia sozialeko osagai ez ezik kohesio sozialeko osagaia ere bai baita.

3. Nafarroako Parlamentuak Diputatuen Kongresuari eta Espainiako Gobernuari helaraziko die adierazpen hau.”

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko ea Hezkuntza Departamentuak zer jarduketa egin dituen eremu ez euskalduneko ikastetxeetan Haur eta Lehen Hezkuntzako euskarazko espezialitateetako lanpostu hutsak betetzeari dagokionez 55/2016 Foru Aginduko zenbait atal indarririk gabe uztea gomendatzen duen Arartekoaren ebazpena dela-eta.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Hezkuntza Departamentuak zer jarduketa egin dituen eremu ez euskalduneko ikastetxeetan Haur eta Lehen Hezkuntzako euskarazko espezialitateetako lanpostu hutsak betetzeari dagokionez 55/2016 Foru Aginduko zenbait atal indarririk gabe uztea gomendatzen duen Arartekoaren ebazpena dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentutaldeari atxikitako Carlos Gimeno Gurpegui jau-

nak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Iritzi publikoaren bidez jakin dugu Arartekoak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari eskatu diola baliorik gabe utz dezan aldi baterako kontratudunei buruzko foru aginduaren parte bat.

Nafarroako Arartekoak, Q16/435 ebazpenaren bidez, Hezkuntza Departamentuari gomendatu zion baliorik gabe utz ditzan 55/2016 Foru Aginduaren 11. artikuluko lehenengo idatz-zatia eta hirugarren xedapen iragankorreko bigarren idatz-zatia, eta gogorarazi zion legezko betebeharra duela foru aginduan jasotzea zer dela-eta erabaki zuen betetzen zailak direla 2016-2017 ikasturtetik aurrera D eredia izanen duten eremu ez euskalduneko ikastetxeetako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako espezialitateetako euskarazko lanpostu hutsak. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua zer egiten ari da ebazpen hori betetzeko?

Iruñean, 2016ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, hezkuntzako patronalarekiko 2016-2017 ikasturtetik aitzineko hezkuntza-itunei dagokienez aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako galdera, hezkuntzako patronalarekiko 2016-2017 ikasturtetik aitzineko hezkuntza-itunei dagokienez aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Carlos Gimeno Gurpegui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Iritzi publikoaren bidez jaki dugu lau alderdien asmoa dela hezkuntza-itunei buruzko eztabaida berehala hastea. Amaitzen diren itunak urtebetarako soilik berrituko ditu, itzulketa nola egin aztertu bidenabar.

Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuak zer asmo darabil hezkuntzako patronalarekiko 2016-2017 ikasturtetik aitzineko hezkuntza-itunei dagokienez?

Iruñean, 2016ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, Sarrigurenen Bigarren Hezkuntzako institutu bat eraikitzeari buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, Sarrigurenen Bigarren Hezkuntzako institutu bat eraikitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xeda-

tuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Hezkuntzako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Aurtengo maiatzaren 26ko Osoko Bilkuran, gure parlamentu-taldeak galdetu zuenean ea nola eta noiz eraikiko zen Sarrigurenen bigarren hezkuntzako institutu bat, kontseilariak erantzun zuen bideragarritasun-azterlan bat egiten ari zela, Sarrigurenen bigarren hezkuntzako institutu bat legegintzaldi honetan eraikitzeko; orduan egiten zen aurreikuspenen arabera, DBHko 6 lerro eta Batxilergoko 4 lerro beharko ziren, eta kostua 7.500.000 euro ingurukoa izanen zen (BEZa barne).

Aurreikuspen hori legegintzaldi honi begira aldatu al da? Zer plangintza ezarri da DBHrako nahiz Batxilergorako azpiegitura hori eraikitzeko? ·

Iruñean, 2016ko abenduaren 1ean

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, Ingelesez Ikasteko Programa arautuko lukeen foru aginduaren zirriborroan jasotzen den saio-kopurua ezartzeko irizpideei buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako galdera, Ingelesez Ikasteko Programa arautuko lukeen foru aginduaren zirriborroan jasotzen den saio-kopurua ezartzeko irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentutaldeari atxikitako Carlos Gimeno Gurpegui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak zer irizpide erabili ditu Ingelesez Ikasteko Programa arautuko lukeen foru aginduaren zirriborroan jasotzen den saio-kopurua ezartzeko?

Iruñean, 2016ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, Benjamín de Tudela BHIra joaten diren ikasleak aurten izaten ari diren garraio-arazoei buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako galdera, Benjamín de Tudela BHIra joaten diren ikasleak aurten izaten ari diren garraio-arazoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentutaldeari atxikitako Carlos Gimeno Gurpegui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Erriberako hainbat herritatik Benjamín de Tudela BHIra joaten diren ikasleak aurten dituzten garraio-arazoak zeri zor zaizkio? .

Iruñean, 2016ko azaroaren 30ean

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, ikastetxe publikoetako eta itunduetako zuzendariekiko urteko bilerari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, ikastetxe publikoetako eta itunduetako zuzendariekiko urteko bilerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak zergatik ez du egin aurten ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako zuzendariekin urtero egiten zen bilera, departamentuak hurrengo ikasturteari begira dauzkan lan-ildoak haiei azaltzeko?

Iruñean, 2016ko abenduaren 1ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, kontratu publikoei buruzko Foru Lege proiektu berriari buruzkoa.

JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako galdera, kontratu publikoei buruzko Foru Lege proiektu berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari José Miguel Nuin Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan:

– Nafarroako Gobernuak zer egutegi darabil Kontratu Publikoei buruzko Foru Lege proiektua prestatzeko eta aurkezteko? Gobernuak zer jarra dauka arau berri horretan gizarte-klausulak jasotzeari dagokionez?

Iruñean, 2016ko abenduaren 1ean

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, *Hazte Oír ¿Sabes lo que quieren enseñarle a tu hijo en tu colegio? Las leyes del adoctrinamiento sexual liburuari buruzkoa.*

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, *Hazte Oír ¿Sabes lo que quieren enseñarle a tu hijo en tu colegio? Las leyes del adoctrinamiento sexual liburuari buruzkoa.*

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntzako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan. ·

Hezkuntza Departamentuak ba al daki Hazte Oír "Sabes lo que quieren enseñarle a tu hijo en tu colegio? Las leyes de adoctrinamiento sexual" liburua Nafarroako ikastetxeetan banatu den?

Banatu baldin bada, non eta zer ikastetxe publiko eta pribatutan banatu da? Departamentuak ba al daki liburua eskolako ordutegian erabili den?

Zer neurri hartu da horri dagokionez? Izan ere, argitalpen horrek urratu egiten ditu Nafarroan oraintsu onetsi den sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko dekretua eta berdintasunari buruzko 2007ko legea.

Iruñean, 2016ko abenduaren 1ean

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, *telefonía mugikorrak Nafarroan duen estaldurari buruzkoa.*

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, *telefonía mugikorrak Nafarroan duen estaldurari buruzkoa.*

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Guzmán Garmendia Pérez jaunak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

Nafarroan telefonía mugikorra baliatzen duten erabiltzaileek kexa ugari dituzte estaldurarik eza dela-eta. Halaber, operadoreek eta Espainiako Gobernuak egindako hainbat azterketaren arabera, gure foru erkidegoa litzateke seinalerik gabeko eremurik gehien dauzkaten artean.

– Nafarroako Gobernuaren ustez, gure lurraldean behar adinako mugikortasun-estaldura al dugu, 4G barne?

– Zeintzuk izan daitezke egoera horren arrazoiak eta hobetze-helburuak?

Iruñean, 2016ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, Elerebro S.A.k kudeatzen duen Castejongo zentral termikoaren bigarren multzoari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Elerebro S.A.k kudeatzen duen Castejongo zentral termikoaren bigarren multzoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldearen ele-dun Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregelamenduan 189. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten ditu, idatziz erantzun diezazkioten:

Oraintsu, 2016ko urriaren 18an, Auzitegi Gorenak epai bat eman du, zeinaren bidez ezetsi baitu Madrilgo Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2013ko maiatzaren 13ko epaiaren aurka jarritako kasazio-errekurtsoa. Epai haren bidez, onetsi egin zen Energia Politikako eta Mehatzeetako Zuzendaritza Nagusiaren 2005eko azaroaren 25eko ebazpenaren aurka jarritako errekurtsoa. Ebazpen haren bidez, berriz, Eléctrica de la Ribera del Ebro S.A.k (Elerebro, S.A.) merkataritza-sozietateari baimena eman zitzaion Castejongo ziklo konbinatuko zentral termikoan bigarren multzo bat paratzeko.

Epai horiek ikusirik:

– Nafarroako Gobernuaren ustez, Elerebro S.A.ren zentral termikoko multzo horrek ez dauka sektore elektrikoari buruzko legediak exijitzen duen baimena, energia elektrikoaren produkzio-instalazio bat abian jarri, aldatu, aldi baterako itxi, eskualdatu eta behin betikoz ixtekoa?

– Nafarroako Gobernuaren ustez, ingurumen, lurralde nahiz gainerako sektoreetako beste edozein baimenen gainera dagoen baimen hori ez edukitzearen aitzinean, gure erkidegoan funtzionamenduan al dago energia elektrikoa ekoizteko eduki beharreko baimenik gabeko zentral bat?

Zer neurri hartuko du, bere eskumenekoa den administrazio-eremuan, legezkontrakotasun-egoe-ra hori zuzentzeko?

– Nafarroako Gobernuaren ustez, funtzionatzeko funtsezkoa den administrazio-baimen hori gabe eta funtsezko egintza horren deuseztasuna ikusita, nahitaezko ingurumen baimena ere izanen al litzateke deuseza?

– Hori guztia kontuan hartuta, Nafarroako Gobernuak itxi egingen al du Castejongo zentral termikoaren bigarren multzoa?

– Nafarroako Gobernuaren ustez, bigarren multzo horri dagokionez Nafarroan izapidetu diren baimenak (jarduera-lizentzia, udalez gairidiko proiektu sektoriala eta ingurumen baimen integratua) aginduzko funtsezko baimena (elektrizitatea ekoizteko administrazio-baimena) eta ingurumen-eraginaren adierazpena lortzearen mende al daude erabat?

– Hori horrela baldin bada, Nafarroako Gobernuak zer urrats egingen ditu bigarren multzo hori ixteko?

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Benjamín de Tudela institutura joaten diren ikasleen garraio-zerbitzuari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Benjamín de Tudela institutura joaten diren ikasleen garraio-zerbitzuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Zergatik gertatzen ari dira egoera ulertezinak –esaterako, berandu iristea edo ez iristea– Nafarroako Erriberako hainbat herritatik Benjamín de Tudela institutura joaten diren ikasleen garraio-zerbitzuan?

Hezkuntza Departamentuak zer konponbide eta epe emanen ditu egoera hori bideratzeko?

Corellan, 2016ko azaroaren 28an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Legearen garapen planari buruzkoa.

ANA SAN MARTÍN ANIZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana San Martín Aniz andreak aurkeztutako galdera, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Legearen garapen planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako

kide den Ana San Martín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Legearen garapen planaren aurkezpenean, 22,5 milioi euroko aurrekontu bat iragarri da 6 urterako (2016-2021).

Zer kontu-sail handituko dira eta zenbat handituko dira aurrekontuetan 2016an eta 2017an garapen horretarako?

Aurrekontuaren handitze hori nola islatuko da hurrengo urteotan?

Nola eta non islatuko dira 22,5 milioi euro horiek?

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Foru parlamentaria: Ana San Martín Aniz

Galdera, sinbolo frankistak direla-eta Gobernuak egin duen behin-behineko zerrendari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako galdera, sinbolo frankistak direla-eta Gobernuak egin duen behin-behineko zerrendari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

Prentsan agertu diren informazioen arabera, Gobernuak sinbolo frankisten behin-behineko errola bat prestatu du. Errola horren kopia idatzi bat jaso nahi dut.

Iruñean, 2016ko abenduaren 1ean

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, Karlismoaren Museoko Batzorde Aholku-emaileari buruzkoa.

JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako galdera, Karlismoaren Museoko Batzorde Aholku-emaileari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarrekin José Miguel Nuinek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Erakundeekiko

Harremanetako Departamentuko kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Oraintsu berritu da Lizarrako Karlismoaren Museoko Batzorde Aholku-emailea. Bertan ordezkaturik dauden taldeetako bat da Comución Tradicionalista Carlista, zeinaren estatutuen 1. artikuluan gurutzada gisa izendatzen baita uztailaren 18ko estatu-kolpe frankista.

1. Bateragarriak al dira elkarte horren parte-hartzea eta Nafarroan 1936an izandako errepresioari buruz egindako adierazpen publikoak eta 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko 33/2013 Foru Legea?

2. Ezkerreko jendearen eta taldeen aurka Nafarroan izandako errepresio ankerrean karlismoak izandako parte-hartzea nola agerraraziko da museo horretan eta kontseilu aholku-emaile horretan?

3. Testuliburuak azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legean ezarritako xede eta helburuetara egoki-

tzeko prozesuan, Gobernuak ba al du asmorik museo horretan karlismoari buruz ematen diren edukiak eta irudia ere berrikusteko?

Iruñean, 2016ko abenduaren 1ean

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin

Galdera, Nasuvinsaren industriarako lurzoruari edo etorkizunean industria-erabilera emateko lurzoruari buruzkoa.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, Nasuvinsaren industriarako lurzoruari edo etorkizunean industria-erabilera emateko lurzoruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

NASUVINSaren industriarako lurzoruari edo etorkizunean industria-erabilera emateko lurzoruari buruzko ezaguera zehatza izateko, gai horren honako alderdiei buruzko galdera hau onartzea eta izapidetzea eskatzen dut, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1. Salmentarako baliagarri dagoen industria-lurzoruen azalera (jada urbanizatua), urbanizatu gabeko industria-lurzoru urbanizagarria edo industria-lurzoru gisa sustatzeko erreserban dagoen lurzoru urbanizaezina, Nasuvinsa enpresaren titulartasuneko, eta horien kokalekua, herriz herri.

2. Aipatutako lurzoru horietako bakoitzaren unitate-balioa, sozietatearen onetsitako azken kontuen balantzean, honako egoera-mota hauen arabera:

a. Lurzoru urbanizaezin gisa sailkatua.

b. Urbanizatu gabeko lurzoru urbanizagarri gisa sailkatua.

c. Eraiki gabeko lurzoru urbanizagarria.

d. Eraikitako lurzoru urbanizagarria.

Iruñean, 2016ko abenduaren 1ean

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko Lankidetzaren Protokoloari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko Lankidetzaren Protokoloari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jasok, EH Bildu Nafarroa Parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko araudiak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari:

Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko Lankidetzaren Protokoloari

loan jasotako 18 jarduera-eremuetako bat da Bake, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen eremua. Publikoki agertu denez, bilera batzuk egin dira Iruñean zein Gasteizen bi gobernuetako ordezkarien artean. Zeintzuk izan dira jorrotutako gaiak eta izandako adostasun zein desadostasunak? Aktarik jaso bada, berauek bidaltzeko eskatzen dugu.

Zeintzuk dira orain arte Bake, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak egin dituen ekimenak funtzionario publikoek eta eskuin muturreko taldeek eragindako indarkeriari eta biktimei dagokienez?

Zer asmo zehatz dauka Bake, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Orokorrek hemendik eta legegintzaldia amaitu bitartean? Eta, zehazki, funtzionario publikoek eta eskuin muturreko taldeek eragindako indarkeria eta biktimen arloan helburu, ekintza, baliabide eta epe zehatzik jasoko duen plangintza eta kronograma egina al du Gobernuak? Hala bada, berau bidaltzeko eskatzen dugu.

Iruñean, 2016ko abenduaren 1ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jasok

